



AUNAMENDI

(PAKOL'en argazkia)

Auñamendi

Naparroako sorkaldeetan, Prantzia ta Aragoiko mugak bertan dituztelarik, zazpi erri politek, geienak Ezka ibaiertzean jarrita, ibar ikuskarri bat osatzen dute; Erronkari. Eta ibar onen muturrean dan Belagua zelaian asten da Euskalerriko mendirik gogorrenak arkitzen diran lurraldea.

Iru Errege Maia (edo Iru Erregeen Maia), Arlas, Añelarra, Budogia ta abar, an dira beti beren ernai tankeran, arkaitzezko adar zorrotzak erakutsiaz, sarri eitur margolariak apainduta.

Ba dira bertan toki ederrak eta baita ere oso latzak. Baso bete-beteak urteetako orbelak azpioyaltzat dituztelarik; abere janari goxoa duten mendi lepoak, millaka ardi, zaldi ta beiekin; basurdeak aztertzen dituzten lur beltzak; orkatzak triskaka dabilizan arraldeak; udazkenean Belaguara jertzitzen diran artzen gordeieku zuloak...

Baña arria da nagusi toki ontan. Eta ezaqutu degun alderdirik latzenetakoa, Larra izeneko arrizko eremua izango degu noski. ¡Ura zigorra ezarri zitzaiona garairzenbatean ango sailleri!

Ez beiarxoz bat, ez otaka bigurrienan kimarik, ez ur tanta bat. Itz batean, ez dago an eskua bete lur arkitzerik. Euskalerraren amaiera ezezik, ludiaren azkentza dala esan liteke. Guzia da an tolestutako aitz pilla ikaragarri bat, eta jentillak goldatutako baratze legor bat dirudi; edo batbatean arri biurtu dan itxaso ezikaitza.

Eta oiatu izugarri bat bezela, len izendatu ditugun mendien aurrean, bada beste arkaitz bat, lañorik goienetakoak urratzen dituana. Euskalerriko mugaz bestaldetik jausten da (abeto esango genuke jaikitzen dala), baño Prantziatarrentzat «Pic d'Anie» bada ere, ba du bere euskel izena: Auñamendi (jatorriz «Antxume-mendi» esan gura omen du), eta naikoa degu agiri an gurea balitz bezela artzeko. Berak dakar gañera gure izkuntzara «Pirineos» mendilerro aundiaren izena, tontor aiek Auñamendiak bezela agertu zaizkiguzenezkero.

Bi milla bosteun ta zazpi neurkin ditu goruntz, itxasoan azaletik neurtuta, eta inguruetako anaiak bezela, arriu tsa da. Sei bat orduko ibillaldi nekatsu bat bete bearra dago Belagutatik bere gallurrera eltzeko; baño bai ederki ordaintzen dizkiola nekeak bere tontoretetik begira jartzen danari!

Geitxo luzatuko genukeg ure jarduna andik ikusten dan guzia esaten asiko bagiña, eta ohe degu uztea zuek ikusi dezazuten, mendigoizale gasteok, gogoragarri izango zaizute Auñamendira joanetorri bat eta.

Baña izan zazutela eguraldi on bat mendi ontara zoastenean...